



Amez

Goiatz Labandibar

Bilduma: Narrazioa

Generoa: Narrazio laburrak

SALNEURRIA (BEZ barne): 14,50 €


ISBN: 978-84-9868-717-0

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 140

Koadernaketa: paperezko azala

ARGITALPEN DATA: 2021/02/21



Sinopsia

Amez dihardute, nondik edo handik, liburu hau osatzen duten hogeita bat narrazioek. Amez buruz, alegia. Baina baita ama izateko edo ez izateko asmo eta pultsioez. Edo ama izateko edo ez izateko modu askotarikoez, kontraesankorrez. Eta ama izateak edo ez izateak berekin dakarrenaz, edo berekin daramanaz, kasu batean zein bestean akaso betiko...

Horietaz guztietaz dihardute Goiatz Labandibarren narrazio indartsuok. Eta baita ere, jakina, amaren estatusa ematen duten seme-alabez, eta haiekiko harreman eta kontraesanez.

Emakumeen bizimodua (ez emakumearena, ez inolako arketipoarena) dute ardatz nagusi kontakizunok, eta ama izatea edo ez izatea gune-guneko bizikizun bihurtzen den une horri begiratzen diote bereziki.

Askotariok dira, era berean, erregistroak. Ironiatsu doaz ale batzuk, kronika kutsukoak dira beste zenbait, ez dira bakanak gogoetan edota emakume zein garai zehatzen historian murgiltzen direnak...

Guztiek dute, baina, literatur asmo bat eta bera: pertsonaien kontzientzian arakatzea, eta irakurlea eramatea haien ekintza eta jokabideen arrazoibideetan barrena, jakin-minaren eskutik. Eta helburua lortzen dute, zinez.

Egileaz

GOIATZ LABANDIBAR ARBELAITZ (Oiartzun, 1985). Kazetaritzan lizentziatua da. Lau ipuin-liburu argitaratu ditu: *Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak* (Igartza Saria); *Fotogramak*, Joan-etorriak bekarekin *Hala bazan... klixk!*, eta *Hori zen dena*. Poema bilduma bat ere argitaratu du, *Interpretazioa g minorrean*, eta Kafe Bar Bilbao antzerki gidioen lehiaketan saritutako *Salaketa* antzezlanarekin idatzi du.